

Ferietako ahuntzak

Duela urte batzuk, bi lagun, Altsasuko Feriatara joan ginen eguna pasatzera. Abereen pastuak ikusten geundela ahuntz batzuk gustatu zitzaizkigun eta beraien prezioa galdetu genuen. Azkenean txiri pixka bat egin ondoren seinale bat utzi eta gosaltzera joan ginen. Herrian zehar trago batzuk hartu ondoren, merkatura joan eta zapi gorri batzuk erosi genituen lepoan jartzeko. Bazkaldu ondoren, ahuntzak hartu eta herrian zehar txikito batzuk edatera joan ginen hauekin.

Arratsaldean, Paraisora joan ginen ahuntzekin, baina hauek barrura sartzen utzi ez zigutenez, atzeko aldean lotu eta barrura sartu ginen. Nire laguna neska batekin ligatu zuen, baina horrenbeste edan genuenez Dantzalekura joan ginen mozkorraldia pasatzera baina ahuntzik gabe, hauek lapurtu zizkiguten eta.

Mozkorraldia pasatu ondoren herrira bueltatu ginen. Bat-batean bi ijito ikusi genituen, bi ahuntzekin. Gure ahuntzak zirelakoan beraiekin borrokan hasi ginen.

Azkenean, bai ijitoak eta baita guk ere ahuntzik gabe gelditu ginen, hauek mendira alde egin baitzuten.

Egileak: Pedro Beraza
J. Angel Beraza
Marian Carrasco
Mertxe Alonso
Matias Rayo
Patxi Rabaz